

## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Italiara, Suitza eta Alemanian barrena



ARITZ GALARRAGA


**B**adirudi aurten ere ez dugula, Hawaii, Mumbai, bidai handi horietarik bat egingo. Aurten ere, esan dut, inoiz egin izan bagenu bezala. Printzipio kontua da gainera, ahalik eta arinena nahiko genuke lurren gaineko gure pasajea. Baina horregatik ez diogu uko egingo bidaiatzeari, noski. Lehena izan da Montaigne maitea, *Journal du voyage en Italie, par la Suisse et l'Allemagne en 1580 et 1581*. Eta ez dakit entseien jarraipen, baina bai osagarri, haietan egiten zuen bere buruaren irudiarena, besterik ez bada. Hainbesteko lanketa filosofiko-literarioak gabe, apenas dagoen lekurik eguneroko bizimodu, sinple, materialarentzat.

Ezen Montaigneren bidaiak Italia baitu helburu, zehatzago Erroma –ematen du kargu baten xerka, agian enbaxadorearena–. Egiak, nahiago luke joan Krakovia edo Greziara. Bost axola, hemen ere helmuga baino garrantzitsuagoa baita bidea. Eta bidean topatzen dituenak notatzea, erlijio, politika, zibilizazioari buruzkoak. Lurtarrago sarri, diru kontuez ari da, edo konpainiako emakumez. Are lurarregi, azaltzen nola bota duen giltzurruneko harria, kostata. Nahiago du joan gutxik bisitatutako lekuetara, askok bisitatutakoak ezagunegi baitira –Venezia, adibidez, aurkitzen du ez hain admiragarria–. Aita santuari egindako bisita kontatzen digu, baiki, baina gehiago laketzen da haur judutar baten zirkunzioan. Eta ironiaz aipatzen du Erromako hiritar izendatzen uzten dela. “Ez dakit zer bilatzera joaten naizen atzerrira, baina oso ondo dakit zerengandik ihes egiten dudana etxetik”.

Stefan Zweigek, Bigarren Mundu Gerra lehertuta, bere garaiarekin konparatzen du Montaignerena: inoizko goraldirik gorenaren ondoren inoizko beheraldirik bortitzena bizitzea tokatu balitzaie bezala. Eta famatzen dio independentzia atxikitzeke esfortzua, gizarte gero eta basatiago eta menekoago batean. “Beste gauza askoren artean, Montaignek erakusten digu bidaiatzen”; gurea bezalako garai zurrumbilotsuetan barrena ere. ●

## EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com



## Sanferminak

Zortzi pertsona atxilotu eta horietariko bat espetxeratu dituzte Iruñeko jaietako prozesio eguneko istiluengatik. Espetxeratuari epaileak egotzi dio Curia kaleko istiluan udaltzain bati sudurra hautsi izana ukabilkada batez. Ahotsa-k zabaldutako bideo batek frogatzen du udaltzaina izan zela ukabilkada askatzen lehena.

## Osasuna

Ostreopsis mikroalga toxikoaren kontzentrazio altua aurkitu dute Ipar Euskal Herriko hainbat hondartzatako uretan. Ez da alga mota hau gurean dugun lehen aldia eta katarroaren eta gripearen antzeko sintomak sor diezake (oro har larritasunik gabeak) uretan dauden edo urertzetik dabilzan pertsonen.

## Mercedes

Astelehenean bozkatu zuten langileek Mercedeseko zuzendaritzak eta enpresa batzordeko sindikatuen %55ak aurreko astean sinatutako akordioa, langile askok grebarekin jarraitzen zuen bitartean. ELA, LAB eta ESK-k salatu dute erreferendumaren araudia urratu duela patronalak, eta langileak presionatzen ari dela zuzendaritza.